

## Hasita dago Kooperatibagintza aditu tituluaren hirugarren aldia

2010/10/28

Joan den urriaren 15ean, Kooperatibagintza izeneko aditu tituluaren 3. aldia hasi zen. Aditu titulu hau Mondragon taldeko Gestio Sozialak eta HUHEZI-Lankik antolatzen dute. Oraingo honetan 16 ikasle matrikulatu dira bertan (13 Fagor taldekoak, 2 Eroskikoak eta 1 LKSKoa), eta ostiralero Otolara II erainikean elkartzen dira, Aretxabaletan, eta bertan bost orduz jarduten dute.

laz ez bezala, aurtengo edizioa gaztelaniaz ematen ari da, urtetik urtera aldatu egiten baita hizkuntza.

### Helburuak

Graduondoko honek kooperatibagintzaren gaineko hausnarketa egiteko elementuak jarri nahi ditu ikasleen eskura. Bestetik, baliabideak eskaini nahi ditu pertsonak prestatzeko, gure kooperatibetan ideia kooperatiboaren trakzio eta hedatze lanean jardungo dutenak. Asmo horiek lortze aldera aditu titulu honen hezkuntza eskaintzak ezaugarri hauek izango ditu:

- Formazio ideologikoa. Hezkuntza kooperatiboa ideien, debate sozial, ekonomiko eta etikoen eremuan kokatzeko ahalegina egingo da.
- Formazio dialogikoa eta partehartzailea.
- Formazio dinamikoa. Partehartzaileen esperientzia, kezka eta etorkizuneko erronkak trukatzeko une eta guneak sortuko dira.
- Asmo eraldatzailea izango du programa honek. Kooperatibetako proiektu sozialean trakzio lanak egingo dituzten pertsona konprometitua jantztea izango du helburu, beren eremuetan eragin biderkatzailea izan dezaketanak.

### Moduluak

Ikasleek modulu hauek landuko dituzte:

- Gaurko gizarte aldaketak eta kooperatibagintzaren kokapena: aldaketa aro, aro-aldaketa
- Arrasateko Kooperatiba Esperientzia
- Kooperatibagintzaren barne dimentsioa: demokrazia eta partehartzea
- Kooperatibagintzaren kanpo dimentsioa: gizarte eraldaketa eta garapen komunitarioa
- Lankidetzaren psikologia. Psikologia enpirikoa pertsona eta erakunde kooperatiboentzako oinarri gisa
- Hezkuntza kooperatiboaren kudeaketa

Moduluetako lanez gain, ikasleek proiektu bat egin beharko dute.

### Antolamendua

**Zuzendaria:** Ainara Udaondo

**Batzorde Pedagogikoa:** Jon Sarasua, Joseba Azkarraga, Ainara Udaondo, Andoni Mugika eta Iñigo Iñurrategi.

